

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UDALA

Iruña Okako Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko maiatzaren 22ko erabakiaren laburpena, zeinaren bidez deialdi publikoa egiten baita 2019-2020 ikasturtean Iruña Okako ikastetxe publikoetako ikasleen gurasoen elkarteek sustatutako eskolaz kanpoko ekintzak diruz laguntzeko

BDNS (identifikatzailea): 507203

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>):

Lehenengoa. Onuradunak

Dirulaguntza deialdi honen onuradun izango dira Iruña Okako ikastetxe publikoetako ikasleen gurasoen elkarteak. Elkarte onuradunek derrigorrezko hezkuntza mailak ematen dituzten ikastetxeei lotuta egon behar dute.

Dirulaguntzaren onuradun izateko, gurasoen elkarteak kasuan kasuko elkartearen erregistroan egongo da inskribatuta (otsailaren 10eko 66/1987 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleen gurasoen elkarteak arautzen dituena).

Bigarrena. Xedea

Deialdi honen xedea da Iruña Okako ikastetxe publikoetako ikasleen gurasoen elkarteak sustatzea parte har dezaten aktiboki eskola prozesuan, eta finantzatzen laguntzea hortik sortzen diren gastuak.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Iruña Okako Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak onetsi zituen 2020ko maiatzaren 22an eta udalaren web orrian argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Gehienez ere, 7.000 euroko aurrekontu esleipena dago jasota 2020ko udal aurrekontuaren 326.434.000 partidan, dirulaguntzaren gai diren jarduerak garatzeko.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Iruña Okako ikastetxe publikoetako ikasleen gurasoen elkarteek deialdian parte hartu nahi badute, dagokion eskaera aurkeztu beharko dute, baldintza hauen arabera:

5.1. Aurkezteko epea: deialdi hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik 2020ko irailaren 15era arte, egun hori barne.

5.2. Aurkezteko lekua: Iruña Okako Udalaren bulegoetan edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak xedatutako moduan.

Iruña Oka, 2020ko maiatzaren 22a

Alkate-lehendakaria

MIGUEL ÁNGEL MONTES SÁNCHEZ